

# Lan poltsako lan eskaintza irekiak



Armeria Eskola  
Elkartea  
Asociación  
Armeria Eskola

Isasi, 36. 20600 Eibar (Gipuzkoa) / 633 90 93 88  
lanpoltsa@armeriaeskola.eus / [www.armeriaeskola.eus](http://www.armeriaeskola.eus)

Hauexek dira momentu honetan zabalik ditugun lan eskaintzak:

## MANTENTZE-LANETAKO TEKNIKARIA:



MENDARO

Egin beharreko lanak: CNC makinen mantentze prebentiboa eta zuzentzailea egitea.

Formakuntza: Mantentze elektromekaniko edo mekatroniko industrialeko goi-mailako formakuntza-zikloa.

Esperientzia: 3 urtekoa CNC makinen mantentze-lanak egiten.

Kontratu mota: Kontratu mugagabea.

Lanaldia: 2 txandatan edo lanaldi zatitua.

Soldata: Negoziatu beharrekoa.

## PRODUKZIO-LINEA AUTOMATIKOKO OPERADORE ARDURADUNA:



ELGOIBAR

Egin beharreko lanak: Linea abiaraztea, makina-aldaketak gainbegiratzea, tresnak muntatzea, OOL mantentze-lanak egitea, eragiketak erregistratzea, makineriaren oinarrizko automantenimendua egitea, zedularen eguneroko beharrak koordinatzea beste atal batzuekin lotuta (materialaren hornidura, trokelak, mantentze-lanak, etab.) eta bere ekipoak sortzen duen kalitatearen erantzukizuna izatea.

Formakuntza: Mekanizazioko edo instalazio elektriko eta automatikoetako erdi-mailako edo

automatizazioan eta robotika industrialeko, mekatronikako edo fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioko goi-mailako formakuntza-zikloa.

Esperientzia: 3 urtekoa, forjetako edo beste industria-sektore bateko linea automatizatuak erabiltzen.

Ezagutzak: Robotikan eta orga jasotzailea erabiltzen aurretiazko ezagutzak positiboki baloratuko dira.

Profila: Jarrera positiboa eta proaktiboa den pertsona.

Kontratu mota: Kontratu mugagabea.

Lanaldia: Txandakako lanaldia.

Soldata: Lehiakorra.

## MATERIAL ELEKTRIKOAREN ESKAERAK ETA ESKAINTZAK

### KUDEATZEKO TEKNIKARIA:



OLABERRIA

Egin beharreko lanak:

Bezeroen eskaerak izapidetzea, kontrolatzea eta jarraipena egitea, telefono, fax edo posta bidez.

Eskaintzak administrazio-ikuspegitik kudeatzea.

Erreklamazioak kudeatzea: Epeak ez betetzea, desadostasunak, itzulketak.

Bezeroaren eguneroko beharrei erantzutea: Merkataritzako euskarri teknikoa, informazioa.

Bezero eta hornitzaileekin negoziatzea eta akordioak egitea.

Zorroaren bilakaeraren jarraipena.

Kanpoko komertzialari laguntzea eta harekin koordinatzea esleitutako bezeroekin lotutako kudeaketetan: Eskaintzak prestatzea, eskaeren jarraipena egitea, etab.

Kudeatutako hornitzaileei buruzko informazio eguneratua mantentzea: Katalogoak, sustapenak, berrikuntzak, hornidura-baldintzen aldaketak, sustapen-marketina.

Formakuntza: Elektrizitate/elektronikako goi-mailako formakuntza-zikloa.

Informatikakoak eta material elektrikokoak, oro har (behe-tentsioko produktuak, argiztapena, etab.).

Esperientzia: 2 urtekoa merkataritza-kudeaketako jardueran (hobe banaketan), eskaintzak egiten,

eskaerak egiten, etab. eta material elektrikoa maneiatzen (koadroak maneiatzen, instalatzen).

Biltegi elektrikoan, salmentetan eta bezeroekiko harremanetan esperientzia baloratuko da.

Hizkuntzak:

Maila ertaineko ingelesa.

Euskara mintzatua.

Profila: Pertsona proaktiboa, bezeroarengana bideratua eta taldean lan egitera ohitua.

Kontratu mota: Sei hilabeteko hasierako kontratua, mugagabea izateko aukerarekin.

Lanaldia: Lanaldi osoa.

Soldata: Hautatutako pertsonaren balioaren arabera negoziatu behar da.

Eskaintzen da: Formakuntza intentsiboa eta espezializatua enpresaren kontura eta garapen profesionalerako aukera.

## MANTENTZE-LANETAKO LANGILEA:



ARRASATE

Egin beharreko lanak:

Mantentze zuzentzailea eta mantentze prebentiboa egitea.

Lantegiko arduradunekin koordinatzea, hau da, mantentze-lanetako eta instalazio orokorretako buruarekin eta fabrikazioko eta ingeniartzako buruarekin, ekipoekin lotuta egin beharreko lanetarako.

Makinen prebentziozko mantentze-planen eta hobekuntza-planen etengabeko hobekuntzan laguntzea.

Ekipoen funtzionamendua (makina-parkea) ezagutzeko eta eguneratuta edukitzeko ardura izatea, elektronikaren eta mekanikaren arloko formakuntza egokia mantenduz.

Formakuntza: Mekatronikako edo mantentze elektronikoko goi-mailako formakuntza-zikloa.

## MEKANIZAZIOKO LANGILEA:



ELGOIBAR

Egin beharreko lanak: Tornu konbentzionaleko eta CNCko eta artezteko makina konbentzionaleko

eta CNCko lanak egitea.

Formakuntza: Mekanizazioko erdi-mailako edo goi-mailako formakuntza-zikloa.

Esperientzia: 2 urtekoa.

Kontratu mota: Kontratu mugagabea.

Lanaldia: Lanaldi osoa zatitua.

Soldata: 18.000€ - 24.000€.

Automobil propioa izatea: Bai.

Bidaiatzeko prest egotea: Ez da beharrezkoa.

Egoitza: Ahal dela, Debararrenan.

## FRESATZAILEA:



ASTEASU

Egin beharreko lanak:

CNC fresatzeko makinako lanak egitea.

CNC fresatzeko makinaren bidez piezak mekanizatzea.

Makinaren programazioa kudeatzea.

Formakuntza: Mekanizazioko erdi-mailako edo goi-mailako formakuntza-zikloa.

Esperientzia: 2 urtekoa fresatzeko makina erabiltzen eta maneiatzen.

Kontratu mota: Kontratu mugagabea.

Lanaldia: Lanaldi osoa txandaka.

Soldata: Hitzarmenaren arabera.

Automobil propioa izatea: Bai.

Bidaiatzeko prest egotea: Ez da beharrezkoa.

## TORNULARIA:



LEZO

Egin beharreko lanak:

Piezak plano azpian torneatzea.

Piezak mekanizatzea.

Tornua programatzea, parametroen eta neurrien arabera.

CNC tornua maneiatzea.

Formakuntza: Mekanizazioko erdi-mailako edo goi-mailako formakuntza-zikloa.

Ezagutzak: Tornuaren programazioan eta planoen interpretazioan.

Esperientzia: 2 urtekoa CNC tornua erabiltzen.

Kontratu mota: Hasierako kontratua ETT baten bidez.

Lanaldia: Lanaldi osoa zatitua.

Soldata: Hitzarmenaren arabera.

Automobil propioa izatea: Bai.

Bidaiatzeko prest egotea: Ez da beharrezkoa.

## IGOGAILUEN MANTENTZE-LANETAKO TEKNIKARIA:



BERGARA/ARRASATE

Egin beharreko lanak: Mantentze prebentiboa eta zuzentzailea egitea.

Formakuntza: Mekatronikako edo mantentze elektromekanikoko goi-mailako formakuntza-zikloa.

Profila: Pertsona gaztea lan egiteko gogoarekin, proaktiboa eta esnatua.

Kontratu mota: Kontratu mugagabea, 6 hilabeteko aldez aurreko batekin.

Lanaldia: Lanaldi jarraitua edo zatitua, azken hori 3 astean behin izango da, eta hautagaia prestatu ondoren.

Lan ordutegia: 08:30etatik 16:30etara edo 08:30etatik 13:30etara eta 15:30etatik 18:30etara.

Soldata: Gipuzkoako siderometalurgiako hitzarmenaren arabera.

## ZERBITZU TEKNIKOAREN ARDURADUNA:



ALEMANIA

Egin beharreko lanak:

Instalazioetako gailu eta modulu elektronikoak muntatzea, parametrizatzea, programatzea eta egiaztatzea.

Instalazioetako matxurak abiaraztea, mantentzea eta konpontzea.

Proiektuko arduradunarekin eta bezeroarekin hitz egitea, zerbitzua ematen ari denean.

Autoz egindako joan-etorriak, zerbitzu teknikoa aukeratutako eremutik emateko.

Formakuntza: Instalazio elektriko eta automatikoetako erdi-mailako formakuntza-zikloa.

Ezagutzak: Windows sistema eragilean.

Esperientzia: Antzeko lanpostuan edo modulu elektronikoaren parametrizazioan eta programazioan.

Hizkuntzak: Hizketakideekin hitz egiteko aleman maila.

Kontaktu mota: Kontratu mugagabea.

Lan-ordutegia: Ordutegi malgua.

Soldata: 35.000€ - 55.000€.

Gidabaimena: Bai.

Eskainiko da:

Enpresa-autoa.

Etxea eskuragarri Leipzigen (Alemania), ostatu propioa aurkitu arte.

Formakuntza.

## KANPOKO SAT TEKNIKARIA:



DURANGO

Egin beharreko lanak:

Instalatutako makinetan sortzen diren matxurak konpontzeko beharrezkoak diren jarduera guztiak egitea (diagnostikoa, ordezkoko piezak bidaltzea, momentuan konpontzea, aholkularitza, etab.).

Matxurak konpontzeko osagaien zerrendak eta aurrekontuak egitea.

Makina berriak instalatzea eta martxan jartzea.

Bezeroen dei, email, eta abarrei erantzutea.

Bezeroak (erabiltzaileak eta/edo banatzaileak) makinen maneian eta mantentze-lanetan prestatzea.

Formakuntza: Unibertsitate-titulazioa (ingeniaritza teknikoa) edo mekatronikako, elektrikako, elektronikako edo mekanikako goi-mailako formakuntza-zikloa.

Lan ordutegia: 08:00etatik 13:00etara eta 14:30etatik 17:30etara.

Bidaiatzeko prest egotea: Bai, atzerrira.

Profila: Komunikatzeko eta diagnostikatzeko eta talde-lanean lantzeko gaitasuna duen pertsona.

Hizkuntzak:

B2 maila ingelesean.

Frantsesa eta/edo alemana jakitea baloratuko da.

## MEKANIKARI MUNTATZAILEA:



DURANGO

Egin beharreko lanak: Makina berriak muntatzea, makina zaharren retrofitting-a, makina propioen mantentze-lanak, nibelazioa, etab.

Formakuntza: Mekatronika industrialeko goi-mailako formakuntza-zikloa.

Esperientzia: Urtebetekoa.

Ezagutzak: Planoen interpretazioan, rotaflex-aren eta zulagailuaren maneian eta erreminta orokorretan.

Profila: Pertsona gaztea eta lan egiteko gogoia duena.

Kontratu mota: Praktikaldiko kontratua.

Lanaldia: 07:00etatik 15:00etara.

Soldata: 1.330€ garbi.

Automobil propioa izatea: Ez da beharrezkoa.

Bidaiatzeko prest egotea: Bai, Logroñora eta beste lantoki batzuetara bidaiatzeko.

Lanpostu hutsak: 2.

**ZELULA**

**ROBOTIZATURAKO**

**MIG-MAG**

**SOLDATZAILE**

## ERDIAUTOMATIKOA:



ERMUA

Egin beharreko lanak:

Robota elikatzeke soldadura-tresnak muntatzea.

MIG teknikarekin robotean soldatutako piezak berreskuratzea.

Piezen muntaia egitea.

Autokontrola egitea.

Formakuntza: Soldadurako ikastaroa.

Esperientzia: Automobilgintzako sektorerako tamaina handiko piezen manipulazioan.

Profila: Ahal dela, %33-ko desgaitasuna edo handiagoa aitortuta izatea baloratuko da.

Kontratu mota: Behin-behineko kontratua.

Kontratuaren iraupena: 6 hilabete, jarraitzeko aukerarekin.

Soldata: 1.700€.

Lanaldia: Lanaldi osoa txandaka.

Egoitza: Lantokitik gertu.

## TEKNIKARI KOMERTZIALA:



GASTEIZ

Egin beharreko lanak:

Industriako produkzio-kateei balio erantsiko irtenbideak ematen dizkieten ekipoen salmenta teknikoa egitea.

Industria-sektore guztiei zuzentzea eta erronka tekniko eta komertzialei aurre egitea.

Formakuntza: Automatizazio eta robotika industrialeko goi-mailako formakuntza-zikloa.

Formakuntza bat eskainiko da enpresaren kontura.

Profila: Teknologia gustuko duen pertsona, langilea eta hobetzeko espirituarekin, erronka etengabeak dituen etorkizuneko proiektu bat bilatzen duena.

Kontratu mota: Kontratu mugagabea.

Inkorporazioa: Berehalakoa.

## CNC FANUC TORNULARIA:



IURRETA

Egin beharreko lanak: Pieza labur konplexuen serieak egitea presio altuko hidraulikarako.



Formakuntza: Fabrikazio mekanikoko goi-mailako formakuntza-zikloa.

Ezagutzak: Programazioan.

Profila: Ikasteko eta enpresan etorkizuna izateko gogoia duen pertsona.

Kontratu mota: Kontratu mugagabea.

Lanaldia: Goizeko eta arratsaldeko lanaldia txandetan.

Soldata: Hautagaiaren profilaren arabera izango da.

--

*Gure lan eskaintzaren bat interesatuz gero, bidali zure CV-a [lanpoltsa@armeriaeskola.eus](mailto:lanpoltsa@armeriaeskola.eus) helbidera eta enpresari bidaliko diogu.*

*Edozein zalantza baduzu gurekin jar zaitezke harremanetan.*

*Informazio gehiagorako: Eider Vicente.*

**943 20 32 44**

**[lanpoltsa@armeriaeskola.eus](mailto:lanpoltsa@armeriaeskola.eus)**